

RESKILLING ETA UPSKILLING EKINTZAK, DESPOPULATZEKO ARRISKUAN DAUDEN EREMUETAN BIZTANLERIA AKTIBOAREN KUALIFIKAZIOA ETA BIRKUALIFIKAZIOA PRESTATZEKO BERRESKURATZE- ETA ERRESILIENTZIA-MEKANISMOAREN LANBIDE-HEZIKETA BULTZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOAREN 20. OSAGAIAREN ESPARRUAN

XEHETASUNA

LURRALDE JASANGARRITASUNEAN FORMAKUNTZA

Bi prestakuntza ekintza egiteko eskaintza.

60 orduko iraupena,

Aurrez aurreko modalitatean.

Erdialdea eta Izarbeibar-Nobenera

Erribera eta ErriberaGoiena

Testuingurua: **Nafarroa Ezagutu Sarekari lotutako espazio eta entitaeak**

TESTUINGURUA

Nafarroako landa-lurraldeak ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-erronka desberdinei egin behar die aurre: klima-aldaketa, natura- eta ondare-espazioen degradazioa eta erregulazio falta, landa-inguruneetan despopulazioa eta aukerarik eza, tokiko biztanleen eta bisitarien arteko masifikazioa eta elkarbizitza-arazoak, etab. Esparru horretan, beharrezkoa da profesional trebatuak eta prestatuak izatea, lurraldearen erronkei erantzun errealak eman ahal izateko jasangarritasunaren ikuspegitik.


HELBURUAK

1. Prestakuntza-ekintza:

“Jasangarritasuna landa-eremuan”

Ikasleei iraunkortasunari buruzko ezagutza teoriko eta praktikoak (Agendak, Garapen Jasangarrirako Helburuak GJH, Nazioarteko Itun Berdeak) eta espazioen gobernantzari buruzko ezagutzak ematea du helburu.

Tresnak, praktika onak eta proposamenak ezagutaraziko dira, lurralderako konponbide sentikor, jasangarri eta eraginkorrak dinamikoki eta talde prestatzailearen esperientzian oinarrituta, lurralde-dinamizazio iraunkorrean aditua baita..



2. Prestakuntza-ekintza: “Lurraldeari aplikatutako jasangarritasuna”

Ikasleei jasangarritasunaren hiru ardatzetan programa/proiektu oso bat planteatzeko beharrezko gaitasunak ematea du helburu. Programa/proiektu hori Sareko espazioen erronka errealei erantzuteko diseinatuta egongo da.

Horretarako, ikasleek hasierako diagnostikoa egingo dute, lurraldearen eta bertako eragileen errealitatearen ezagutzan sakonduko dute, inplikaturako eragileekin komunikatzeko bideak sortuko dituzte, eta modu adostuan ekintza jasangarrien programa bat edo proiektuak proposatuko dituzte dagokien lurraldeko eragileekin.

Prestakuntza ekintza honek behar diren gaitasunak emango dizkie ikasleei lurraldearen azterketa eta diagnostikoa egiteko, tokiko erronkak identifikatzeko eta berriazko irtenbideak emateko, iraunkortasunaren ikuspegitik, hiru aplikazio esparrutan: ingurumenekoa, soziala eta ekonomikoa.

Prestakuntza ekintzaren zati praktiko bat da jardueren programa ezartzea edo tokiko erakundeekin lankidetzan Nafarroa Ezagutu Sarearen espazioetan diseinatutako proiektu txiki bat idaztea, eta horren ondorengo ebaluazioa.


EDUKIAK

1. prestakuntza-ekintza: Jasangarritasuna landa-eremuan (60 ordu)

Jasangarritasunaren hastapenak: GJH, Agenda 2030, Hiri Agenda eta nazioarteko beste itun batzuk.

- **Ingurunearen diagnostikoa eta ezagutza:** Inguruaren espazioen, beharren eta erronken kudeaketa ulertzea. Iraunkortasunerako jardunbide egokiak (baliabideen potentziala, ondarearen interpretazioa eta sentsibilizazioa).
- **Ingurumen-jasangarritasuna:** Natur ondarea ezagutzea, balioa ematea eta ingurumen hezkuntza. Espazioak modu iraunkorrean kudeatzeko tresna digitalak.
- **Jasangarritasun ekonomikoa:** Tokiko jarduera ekonomikoa eta eskualdeko erreferenteak ezagutzea. Erabilera berriak eta erabilera tradizionalak elkarrekin bizitzea. Ekimena, ekonomia zirkularra, bertako produktua eta 0 km.
- **Jasangarritasun soziokulturala:** Kultur ondarea ezagutzea (materialetik ez-materialera), ondoren eskualdatzeko. Ondareari balioa emateko tresna digitalak.

- **Zeharkako materialak:** Gatazkak jakinarazi eta konpontzea, parte hartzea, ezgaitasuna duten pertsonen laguntzea, boluntarioak eta lurraldearen zaintza.



2. Prestakuntza ekintza: Lurraldeari aplikatutako jasangarritasuna (60 ordu)

- **Programa/proiektu jasangarriak diseinatzea.** Lurraldean dauden erronkak eta beharrak atzematea. Jarduera programa edo proposamen bat diseinatzea. Jardueren/proiektuen bideragarritasuna.
- **Programa eta jarduera jasangarriak gauzatzea eta ebaluatzea.** Jardueretako bat abiaraztea, lurraldeko erakundeekin koordinatuta. Nola egin balorazioa? Zer atera da ondo eta zer hobetu beharko da etorkizunean?

ALDERDI BALORAGARRIAK

Prestakuntzan parte hartzeko, alderdi hauek baloratuko dira:

1. **Motibazioa** eta norberaren edo lanaren aldetik **lurraldearekin duen lotura** (Erdialdea eta Erribera).
2. Ingurumen, landa ingurune, dinamizazio soziokultural, ondare eta abarrekin zerikusia duen lanbide heziketako edo unibertsitate mailako **titulua** izatea. edo curriculum-praktikak amaitu gabe egotea eta/edo ikasturte-amaierako lana entregatzea.
3. **Oinarrizko** ofimatika
4. Dinamizazio, arreta eta/edo iraunkortasunean aldez aurreko **ezagutza eta/edo esperientzia** izatea.
5. **Beste trebetasun batzuk:** Komunikatzeko trebetasunak eta pertsonetikiko arreta, ekimena, talde-lana, sormena, gatazken konponbidea...
6. **Gidabaimena** eta joan-etorrietarako **ibilgailua**.

Ezinbesteko baldintza izanen da prestakuntzan parte hartzeko prest egotea eta **konpromisoa hartzea**, modu presentzian, inoiz ez orduen % 80tik behera.

Kasu guztietan **gaztelania menderatu** beharko da (ahoz, irakurritik eta idatziz) eta **euskaraz jakitea baloratuko** da.



INFORMAZIO INTERESGARRIA

Prestakuntza osatu ondoren, bertaratze titulua emanen da, baldin eta % 80 edo gehiago izan bada.

Programa honetako ikasleek, ematen duten prestakuntzaz gain, honako hauetarako laguntza jasoko dute:

- Prestakuntzaren aprobetxamendua ahalik eta gehien erraztea.
- Gaitasun pertsonalak eta lanekoak garatzen laguntzea, ikasle bakoitzaren ezaugarrien arabera.
- Programa amaitzean kontratazioa sustatzea.

Inskripzio kopuruaren arabera, entitate hezitzaileak ikasleak hautatzen ahalko ditu. Hautaketa proba idatziaren eta elkarrizketa pertsonalaren bidez egiten ahalko da.

Datak

1. Prestakuntza -ekintza: irailaren 21etik urriaren 11ra
2. Prestakuntza-ekintza: urriaren 16tik azaroaren 6ra

Ordutegia: Asteleheneetik ostiralera, 16:00etatik 20:00etara

Lekua

Irunberriko Gizarte Etxea, Irunberri ingurua eta Nafarroako beste toki batzuetara bisitak

Ikasle kopurua: Gutxienez 15 eta gehienez 20 pertsona

Bertaratzea: Gutxienez %80a

Erakundea

Nasuvinsa-Lursarea, arlo desberdinetako adituen laguntzarekin eta Nafarroa Ezagutu Sareko entitateekin.

Inskripzioa

Esteka honetan

Irailaren 1etik 13ra 11:00ak arte

Kontaktuak

Maite Zarranz Elso – 848433486 - mzarrane@nasuvinsa.es

María Rodríguez Beperet – 848420666 – mrodrigb@nasuvinsa.es